

IRAKASKUNTZA-GIDA

2019/20

Ikastegia

160 - Lan Harreman eta Gizarte Langintza Fakultatea. Arabako Atala

Zikl.

Zehaztugabea

Plana

GTRABA10 - Gizarte Langintzako Gradua

Ikastaroa

1. maila

IRAKASGAIA

25928 - Gizarte Langintzaren Oinarriak eta Metodologia

ECTS kredituak: 6

IRAKASGAIAREN AZALPENA ETA TESTUINGURUA ZEHAZTEA

DESKRIPZIO LABURRA

Ikasgai hau 'Gizarte Langintza: Oinarriak, metodologia, teoriak eta gizarte langintzako teknikak' moduluan barne hartzen da, eta helburutzat du, oro har, Gizarte langintzaren ikasketarako sarrera orokorra izatea. Bertan aztertzen dira: bilakaera historikoa, izaera zientifikoa, oinarritze epistemologikoa, espezifikotasunak, helburuak eta metodoa, funtzioak, printzipioak eta etika profesionala.

GAITASUNAK / IRAKASGAIA IKASTEAREN EMAITZAK

GAITASUNAK

- Gizarte Langintzaren gaineko gogoeta egitea, eta horretarako, esku-hartze profesionala garatu den eta garatzen ari den testuingurua aintzat hartzea
- Diziplina eta lanbide gisa Gizarte Langintzak dituen oinarriak definitzea, eta Gizarte Langintzaren helburua zehaztea.
- Gizarte Langintzaren metodologia prozesua ezagutzea, eta esku-hartze profesionalaren prozesua eta prozedurak ulertzea.
- Garatu beharreko funtzioak zehaztea, eta gizarte langileen esku-hartzea baloratzea, beti estrategia profesionalak hobetzeko asmoz).
- Espazio konpartituan Gizarte Langintzak duen espezifikotasuna ulertzea eta diziplinarteko lanaren garrantzia ulertzea
- Ikaslearen gaitasun kritikoa lantzea. Gai izan dadila lanbidearen jardunean aurkituko dituen gatazken, ezbaiei eta arazo etikoen gainean eztabaidatzeko.
- Gizarte Langintzan oinarritzeak diren termino eta kontzeptuak bereganatzea.

EDUKI TEORIKO-PRAKTIKOAK

ANECAK ONARTUTAKO EDUKIEN DESKRIPZIO LABURRA:

- Gizarte langintzarako sarrera analisia.
- Gizarte langintzaren bilakaera prozesua: aurrekariak, sorrera eta bilakaera.
- Gizarte langintza: disziplina zientifiko eta soziala: kontzeptu eztabaidatua.
- Oinarritze epistemologikoa: beste zientzien ekarpenak eta teoria-praktika harremana. Espezifikotasuna: berezko ikuspegia.
- Gizarte langintzaren nortasuna eta izaera zientifikoa: objektu-subjektua; helburuak eta metodoa: metodoaren faseak.
- Gizarte langintza lanbide gisa: funtzioak, printzipioak eta etika profesionala
- Gizarte langintzaren inguruko gogoeta. Oraingo egoera eta erronkak

GAI ZERRENDA ZEHATZA

1. GIZARTE LANGINTZARAKO HURBILPENA

2. GIZARTE LANGINTZAREN BILAKAERA PROZESUA

2.1. Gizarte beharrianak eta gizartea babesa. Gizarte Langintzaren oinarritze kontzeptuak eta bilakaera prozesuaren etapak: Aurreteknikoa, Teknikoa, Aurrezientifikoa eta Zientifikoa

2.2. Lanbidearen aurrekariak. Gizarte Langintzaren erreferentzia teoriko eta profesionalak: Juan Luis Vives eta San Bizente Paulekoa. Gizarte langintzaren sorrera markoa: profesionalizatzeko beharra eta erantzunaren teknifikazioa.

2.3. Gizarte langintzaren sorrea. COS eta Mary Richmond, nortasun profesionalaren funtsa. Settlement mugimendua eta Jane Addams

2.4. Gizarte Langintzaren bilakaera eta garapena. Instituzionalizazio prozesuaren etapak.

3. GIZARTE LANGINTZA: DIZIPLINA ZIENTIFIKO ETA SOZIALA

3.1. Gizarte langintza, kontzeptu eztabaidatua

3.2. Gizarte langintzaren oinarritze epistemologikoa. Gizarte langintza diziplina sozial eta integratu gisa. Oinarritze erreferentziatzeko diziplinak Gizarte Langintzarentzat; Teoria-Praktika harremana gizarte langintzan

3.4. Gizarte Langintzaren nortasuna eta bere izaera zientifikoa

- Objektua-subjektua

- Helburuak

- Metodoa. Faseak: Ikerketa, diagnostia, plangintza, esku-hartzea eta ebaluaketa

4. GIZARTE LANGINTZA LANBIDE GISA

4.1. Gizarte langilearen funtzioak

4.2. Esku hartzeko irizpideak gizarte langintzan

4.3. Etika eta Gizarte langintza: Gizarte langintzaren kode deontologikoa

GIZARTE LANGINTZARI BURUZKO GOGOETA. Oraingo egoera eta dauden erronkak.

METODOLOGIA

Ikasgaia garatzeko azalpen eskolak, ikasleen lankidetzaren lanak eta metodologia aktiboak erabiltzen dira, beti proiektuetan oinarritutako metodologia erabiliz.

Prestaketa jarduerak:

Azalpen teorikoak, lanen aurkezpenak, eztabaida zuzenduak, parte-hartze txandak, talde lana, ariketa praktikoak eta informazio bilketa, dokumentu irakurketa eta analisia, solasaldiak, elkarrizketak, hitzaldiak, mahai-inguruak eta tallerrak, arazoentzako lantegia, proiektu lanketak, simulazioak, role-playing, bisitak, portafolioak, etab.

IRAKASKUNTZA MOTAK

Eskola mota	M	S	GA	GL	GO	GCL	TA	TI	GCA
Ikasgelako eskola-orduak	45		15						
Ikaslearen ikasgelaz kanpoko jardueren ord.	67,5		22,5						

Legenda: M: Magistrala S: Mintegia GA: Gelako p.
GL: Laborategiko p. GO: Ordenagailuko p. GCL: P. klinikoak
TA: Tailerra TI: Tailer Ind. GCA: Landa p.

EBALUAZIO-SISTEMAK

- Azken ebaluazioaren sistema

KALIFIKAZIOKO TRESNAK ETA EHUNEKOAK

- Garatu beharreko proba idatzia % 70
- Talde lanak (arazoentzako ebazpenak, proiektuen diseinuak) % 30

OHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

Etengabeko ebaluaketa edo Azken ebaluaketa aukerak daude. Lehena hobesten da, baina arrazoi justifikatuak direla medio, ikasleak eskubidea izango du azken ebaluaketa egiteko. Eskubide hau etengabeko ebaluazioan parte hartu zein ez hartu bermatuko da. Ikasleak etengabeko ebaluaziora uko egin diezaiotke irakasleari entregatu beharreko idatzi baten bidez, eta 9. astean baino lehenago.

DEIALDIARI UKO EGITEA. "Etengabeko ebaluazioaren kasuan, azken probaren pisua bada irakasgaiko kalifikazioaren %40 baino handiagoa, nahikoa izango da proba horretara ez aurkeztea azken kalifikazioa "aurkezteke" izan dadin. Aldiz, azken probaren pisua bada irakasgaiko kalifikazioaren % 40 edo hori baino txikiagoa, deialdiari uko egin nahi dioten ikasleek kasuan kasuko irakasgaiaren irakaskuntza aldia bukatu baino, gutxienez, hilabete lehenago egin beharko dute eskaria. Eskari hori idatziz aurkeztu beharko zaio irakasgaiaren ardura duen irakasleari.

3.- Azken ebaluazioaren kasuan, azterketa egun ofizialean egin beharreko proba ez aurkezte hutsak ekarriko du automatikoki kasuan kasuko deialdiari uko egitea" (12.2 art.).

EBALUAKETARAKO IRIZPIDEAK.

- Etengabeko Ebaluaketa:

- Banakako lana %30
- Azken azterketa%70

- Azken ebaluaketa:

- Banakako lanak %30
- Azken azterketa %70

- Ikasgaia gainditzeko ezinbestekoa izango da bai banakako lana eta baita azken azterketa ere gainditurik izatea.

- Azterketa idatziak: gaiak garatzea; proba objektiboak; erantzun laburreko probak; ariketak, arazoak edo supuesto praktikoak ebaztea, eta abar.

- Praktikak egitea: kasuak aztertzea, testuak irakurtzea eta komentatzea, laburpenak egitea...

- Banakako lanak: egin beharreko lan eta proiektuen lanketa, eta, hala badagokio, aurkezpena.

- Erregistro eta behaketa sistemak: asistentzia, ekintzetan parte hartzea

"Normalean, eta besterik adierazi ezean, UPV/EHUko ebaluazio probetan ikasleek debekatuta izango dute liburuak, oharak edo apunteak erabiltzea, bai eta tresna edo gailu telefoniko, elektroniko, informatiko edo bestelakoak erabiltzea ere. (Graduko Titulazio ofizialeko ikasleen ebaluaziorako arautegia" (3. puntu, or.5).

"UPV/EHU honako hauek joko dira jokabide makur edo iruzurrezkkotzat ebaluazio probetan edo ebaluatu beharreko lan adademikoak egitean eta aurkeztean: Lanak plagiatzea, hau da, ignoren lanak kopiatzea jatorria edo iturria aipatu barik eta norberarenak balira bezala ematea ebaluazi akademikorako aurkezten diren testu edo lanetan" (2.a. puntu).

EZOHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

Ezohiko deialdian ohiko deialdiaren baldintzak eta sistemak gordeko dira. Aurreko deialdian Etengabeko ebaluaketa jarraitu dutenei aurkeztutako lanen nota gordeko zaie

NAHITAEZ ERABILI BEHARREKO MATERIALAK

BIBLIOGRAFIA

Oinarrizko bibliografia

- FERNANDEZ GARCIA, Tomas. (2009), Fundamentos del Trabajo Social. Alianza, Madril.
- MOIX, Manuel. (2006), Teoría del Trabajo Social, Síntesis, Madril.
- RED, Natividad. de la (1993), Aproximaciones al Trabajo Social. Siglo XXI, Madril

Gehiago sakontzeko bibliografia

- ANDER EGG, Ezequiel. (1992), Introducción al Trabajo Social, Siglo XXI, Madril.
- BARBERO, Josep Manuel. (2002), El Trabajo Social en España, Mira, Zaragoza.
- ESCARTIN, Maria Jose eta SUAREZ, Esperanza. (1994), Introducción al Trabajo Social I. Aguaclara, Alicante.
- FERNANDEZ, Tomas. eta ALEMAN, Carmen. (2003), Introducción al Trabajo Social. Alianza, Madril.
- GARCÉS FERRER, Jorge. (zuz.) (2000), Concepto y alcance del Trabajo Social hoy, ICEPSS, Las Palmas de Gran Canaria.
- HOWE, David. (1999), Dando sentido a la práctica. Editorial Maristán, Granada.
- ITUARTE, Amaia. (1990), "Trabajo social y servicios sociales: aportes para una clarificación necesaria". In Documentación social, 79, 49-63 orr.
- MORENO J.L. (2003), Epistemología, teoría y metodología de la investigación destinada a la intervención social. EUTS, Huelva.
- PAYNE, Malcom. (1995), Teorías contemporáneas del Trabajo Social, Paidós, Bartzelona.
- ROBERTIS, Cristina de (2003), Fundamentos de Trabajo Social. Ética y metodología, Universidad de Valencia-Nau Llibres, Valencia
- SOYDAN, Haluk. (2004): La historia de las ideas en el Trabajo Social. Editorial Tirant Lo Blanch. Valencia
- ZAMANILLO, Teresa eta GAITÁN, Lourdes(1991), Para comprender el trabajo social. Verbo Divino. Lizarra

Aldizkariak

- Alternativas : cuadernos de trabajo Social
- Biss : boletín informativo servicios Sociales
- Cuadernos de acción social
- Realidades sociales
- Cuadernos de trabajo social
- Documentación social (Cáritas)
- Reis : revista española de Investigaciones sociológicas
- Revista de servicios sociales y Política social
- Revista de treball social (RTS)
- Zerbitzuan

Interneteko helbide interesgarriak

- <http://www.cgtrabajosocial.es>
- <http://www.tsred.org>
- <http://www.unavarra.es/puresoc>
- <http://www.clinicalsocialwork.com>
- <http://www.cswf.org>
- <http://www.iaswresearch.org>
- <http://www.ifsw.org>
- <http://www.nisw.org.uk>
- <http://www.socialworkonline.com>
- <http://www.unites.uqam.ca/rufuts>
- <http://pages.infinit.net/tsssss/tsssss.htm>
- <http://isw.sagepub.com>

<http://www.cahs.colostate.edu/sw/lists.html>
<http://www.rediris.es/list/info/tsocial.html>
<http://www.entornosocial.es>
<http://www.intervencionsocial.com>

OHARRAK